

BAZENEKIEN...


...**hozkailua** dela etxebizitza batean elektrizitate kontsumo gehien daukan etxeko tresnetako bat, **etxebizitza batean kontsumitutako elektrizitatearen %18a gutxi gorabehera.**

... A+++ motako hozkailu baten kontsumoa A motakoak baino **%60 gutxiago** dela:


A+++ motatakoak 160 kWh/urtean, 25 €/urtean izango lirateke
A motatakoak 420 kWh/urtean, 70 €/urtean izango lirateke

... **hotz galeraren %68a** hozkailuaren **isolatzaile txar** bategatik da.


HOTZ GALERAREN ARRAZOIAK



Egun bateko kontsumoaren banaketa (kWh) (4 pertsonako etxebizitza)



KONTSUMO ZENTZUDUN BATERAKO IDEIAK:



1. **Termostatoa modu egokian erregulatu.** Hozkailuarentzako temperatura optimoa $6\text{ }^{\circ}\text{C}$ da eta izozkailuarentzako $-18\text{ }^{\circ}\text{C}$. Temperatura baxuagoak energiaren kontsumoa asko handitzen dute: gradu gutxitze bakoitzeko %5 kontsumo handiagoa.
2. **Hozkailu bete batek huts batek baino gutxiago kontsumitzen du.** Solidoek hotz gehiago mantentzen dute aireak baino. Horregatik hozkailu bat ia hutsik badaukagu, irekitzen dugun aldi oro hotz gehiengo galduko da. Hotza hobeto mantentzeko aukera bat, hozkailuan urez betetako botilak sartzea da.
3. **Ez sartu elikagai berorik hozkailuan,** termostatoa programatuta dagoen tenperatura lortzeko kontsumo gehiago beharko baitu. **Desizoztu elikagaiak hozkailuan,** hotza emango diozu hozkailuari eta energia aurreztuko duzu.
4. Saiatu **atea ez uzten beharrezkoa baino denbora gehiagoan irekita,** izan ere, berriro ixterakoan barrua hozteko behar den kontsumoa izugarria da.
5. **Izozkailuak izotz zuria sortzen badu,** komenigarria da izotz plakak 3 cm izan baino lehen desizoztea. Modu honetan energiaren %30 aurrez daiteke.
6. Hozkailua leku fresko eta ongi aireztatuan jarri, **beti bero iturrietatik urrun.** Komenigarria da 5 cm-ko tartea uztea hozkailua eta pareta artean, horrela aireztapena erraztuko da eta errendimendua hobetu.

